

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN ETA ZENBAIT ERAKUNDEREN ARTEKO
HITZARMENA, NAFARROAKO GOBERNUAREN IKASTETXEETAN
ELKARBIZITZA HOBETZEKO, KANPO LANA PROGRAMAREN BIDEZ.

Iruñean, 2021ko maiatzaren 4an

BILDU DIRA

Carlos Gimeno Gurpegui jauna, NAFARROAKO GOBERNUKO
Hezkuntzako kontseilaria, Hezkuntza Departamentuaren
izenean eta hura ordezkatuz (IFK: S3100007H, eta egoitza
soziala: San Domingo kalea 8, Iruña).

Jon Telletxea Juanenea, Malerrekako Mankomunitateko
lehendakaria, Malerrekako Mankomunitatearen izenean eta
hura ordezkatuz (IFK: P3147827D, eta egoitza soziala:
Zazpigurutze 2, Doneztebe).

Fabiola Martínez Sancho, Elizagorria, Lodosa,
Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateko lehendakaria, Elizagorria, Lodosa,
Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatearen izenean eta hura ordezkatuz (IFK:
P3161393H, eta egoitza soziala: Udaletxe plaza,1
Mendabia).

Javier Chasco Abaigar, Los Arcos aldeko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria, Los Arcos aldeko
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean eta hura
ordezkatuz (IFK: P3122135A, eta egoitza soziala: San
Lazaro 2, Los Arcos).

Manuel Mozota Núñez, Noain aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria, Noain aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G31532989, eta egoitza soziala: San Migel plaza 5, etxabea, Noain).

Nuria Autor Resano, Azkoien aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria, Azkoien aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3119263F, eta egoitza soziala: Corte 13, etxabea, Azkoien).

Maia Ederra Barber, Zaraitzuko eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria, Zaraitzuko eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3135860I, eta egoitza soziala: Arrotxapea 10, Ezkaroze).

Laura Echeverria Azcona, Alloko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria, Alloko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3142286H, eta egoitza soziala: Foruen plaza 7, 2. solairua, Allo).

Jesús María Arrizubieta Astiz, Tafallako Udaleko alkatea, Tafallako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3122700B, eta egoitza soziala: Nafarroa plaza 5, Tafalla).

M.B. Yolanda González García, Vianako Udaleko alkate udalburua, Vianako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3125100D, eta egoitza soziala: Foruen plaza, Viana).

Oscar Amóztegui Recalde, Galar Zendeako Udaleko alkatea, Galar Zendeako Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3110800D, eta egoitza soziala: Udaletxe plaza 1, etxabea, Getze).

Jose Manuel Menéndez González, Beriaingo Udaleko alkatea, Beriaingo Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3190590D, eta egoitza soziala: Udaletxe plaza z.g., Beriain).

Yolanda Obanos Irure, Tebas-Muru Artederretako Udaleko alkatea, Tebas-Muru Artederretako Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3122800J, eta egoitza soziala: Kale Nagusia 42, Tebas-Muru Artederreta).

José Javier Eslava Armendáriz, Ibargoitiko Udaleko alkatea, Ibargoitiko Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3105600E, eta egoitza soziala: San Klemente kalea, Idotzin).

José Manuel García Aróstegi, Eloko Udaleko alkatea, Eloko Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3117200J, eta egoitza soziala: Burgu kalea 4, Elo).

Maria Luisa Serrano Echaves, Biurrun-Olkozko Udaleko alkatea, Biurrun-Olkozko Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P33105600E, eta egoitza soziala: Jai Eder plaza 1, Biurrun-Olkoz).

Sebastián Marco Zaratiegui, Noaingo Udaleko alkatea, Noaingo Udalaren izenean eta hura ordezkatur (IFK: P3108700J, eta egoitza soziala: Foruen plaza 3, Noain).

Gorka García Izal, Corellako Udaleko alkatea, Corellako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3107600C, eta egoitza soziala: Espainia plaza z.g., Corella).

María Lecumberri Bonilla, Barañaingo Udaleko alkatea, Barañaingo Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3138600F, eta egoitza soziala: Nelson Mandela-Bake plaza z.g., etxabea, Barañain).

Miguel Aguirre Yanguas, Fiteroko Udaleko alkatea, Fiteroko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3110400C, eta egoitza soziala: San Raimundo pasealekua 11, Fitero).

Oscar Bea Trincado, Cintruenigoko Udaleko alkatea, Cintruenigoko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3107100D, eta egoitza soziala: Foruen plaza 1, Cintruenigo).

Ana Góngora, Burlatako Udaleko alkatea, Burlatako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P316600J, eta egoitza soziala: Larrañetako plaza z.g., Burlata).

María Pilar Francés, Esklerosi Anizkoitzaren Nafarroako Elkartearen lehendakaria, Esklerosi Anizkoitzaren Nafarroako Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G31575087, eta egoitza soziala: Lerin kalea 25, etxabea, Antsoain).

Ainhoa Gil Pérez, San Jose egoitzaren patronatua erakunde autonomoko zuzendaria, San Jose egoitzaren patronatua erakunde autonomoaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G31505142, eta egoitza soziala: Pascual Oñate kalea 45, Corella).

Pedro Ardaiz, Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioko kudeatzailea, Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G71367437, eta egoitza soziala: Errotazarko kalea 9, Iruña).

Elena Vizcay Azcoitia, Nafarroa Etorkizun Berria Elkarteko zuzendaria, Nafarroa Etorkizun Berria Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G31058274, eta egoitza soziala: Ugarrandia etorbidea 8, etxabea, Uharte).

María Cristina Azcona Pérez, Karitateko Andre Maria ospitaleko zuzendaria, Karitateko Andre Maria ospitalearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P3122701J, eta egoitza soziala: Javier Oses kalea 2, Tafalla).

Mirian Zabalza Goñi, Ahizpa Ospitalariak-Aita Menni klinika psikiatrikoko zuzendari kudeatzailea, Ahizpa Ospitalariak-Aita Menni klinika psikiatrikoaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: R3100260C, eta egoitza soziala: Joaquín Beunza kalea 45, Iruña).

Jose Antonio Delgado, ADISCO enplegu zentro berezia-Desgaitasuna duten Pertsonen Corellako Elkarteko zuzendari nagusia, ADISCO enplegu zentro berezia-Desgaitasuna duten Pertsonen Corellako Elkartearen

izenean eta hura ordezkatur (IFK: G3575939, eta egoitza soziala: Ombatilo industrialdea, B kalea 4, Corella).

Horietako bakoitzak, aipatutako erakundeak ordezkatur, eta hitzarmen hau sinatzeko baimena izanik, beren karguez baliaturik,

ADIERAZTEN DUTE

I.- Hezkuntza Departamentua eta arestian aipatutako erakunde publiko eta sozialak ohartzen dira elkarren lankidetzan onuragarria izanen dela beren komunitateentzat eta, hedaduraz, herriko gizartearentzat.

II.- Hitzarmen hau sinatur, erakunde parte-hartzaileek adierazten dute lankidetzan aritu nahi dutela Nafarroako ikastetxeekin, erantzun alternatiboak emateko, gaur egun bizikidetzaren aurkako edo oso kalteko jokabideen aurrean aplikatzen diren neurrien ordez.

III.- Alderdi parte-hartzaile guztiek uste dute sinergiak ezarri beharra dagoela, ikasleentzat elkarlanak duen heziketa balioaren eta hezkuntza esparrutik kanpoko jendearekin harremana izateko aukeraren artean, parte hartzen duten ikasleen gizarte gaitasunak garatzen laguntzeko eta, era berean, haien ingururako mesedegarria izan dadin.

IV.- Hori dela eta, alderdi sinatzaileek behar adinako ahalmena aitortzen diote elkarri, eta adierazten dute hitzarmen hau formalizatu nahi dutela, ondokoarekin bat:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea. Programaren helburuak.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, arestian aipatutako entitate publiko eta sozialekin lankidetzan, programa bat jarri du abian, ikastetxeko eskoletara edo bestelako jardueretara joateko eskubidea eteteko neurria ordezteko, bizikidetzaren aurkako edo oso kalteko jokabideen ondorioz; izan ere, neurri horiek aplikatzeak ez du beti nahi den eragina izaten ikasleen portaeran.

Ekimen honekin, alderdi positibo bat sartu nahi da jokabide disruptibo batzuk zuzentzeko ohiko prozeduran, eta ikasleei aukera eman nahi zaie bestelako giroetan bizitzeko, beren laguntza ematen duten bitartean.

Beraz, hitzarmen honen xedea da ikastetxeko bizikidetzara araudia aplikatzearen ondorioz gizarte jarduerak egitea dakarren hezkuntza neurria dagokien ikasleekin hezkuntza lan alternatibo bat egitea, honako helburu hauekin:

1. Ikasleen heziketan laguntzea, hezkuntza neurri eraikitzaileak aplikatuz, bidezkoak direnean, eragindako kaltea konpontzeko eta ikaslearen bizitzarako trebetasunak hobetzeko.

2. Ikasleak ez ohitzea ikastetxeko eskoletara edo bestelako jardueretara joateko eskubidea eteteko hezkuntza neurria, bizikidetzaren aurkako edo oso kalteko jokabideen ondorioz, eta, hala, neurri hori zigorra ekarri duten jokabideen indargarri ez izatea.

Ikastetxeko eskoletara edo bestelako jardueretara joateko eskubidea eteteak zenbaitetan ez du aldarazten neurri hori eragin duen jokabidea, eta ikasketekiko interes falta ere areagotu dezake.

3. Ikasleen bizikidetzaren aurkako edo oso kalteko jokabideak gertatzen direnean, hartu beharreko hezkuntza neurrietan alderdi eraikitzaile bat sartzea, ikasleei aukera emanaz bestelako giroetan bizitzeko, entitate laguntzaileen jarduera desberdinetan laguntzen eta elkarlanean ari diren bitartean.

4. Ikasle horiei beste gizarte errealitate batzuk erakustea, haietan inplika daitezten lortzea eta beren erantzukizuna indartzea.

5. Parte hartzen duten ikasleei gizartearentzat baliagarri izateko eta sentitzeko aukera ematea, eta komunitatearen onerako lan egitea.

6. Ikasle horiei ikasketetarako akuilu eta etorkizunerako orientazio gisa balioko dieten jarduera desberdinak erakustea, estereotipoak hausten lagunduko duen hezkidetzaz ikuspegia sartuz.

7. Ikasle horiei laguntzea beren interesak aurkitzen, beren bizi proiektua eraikitzena begira.

Bigarrena. Programaren edukia.

Honetan datza programa:

Ikasleek eskola-jarduerak egiten dituzte ikastetxean

bertan, irakasle batekin eta/edo hezkuntza komunitateko beste kide batekin.

Ikasleek parte hartuko eta lagunduko dute erakunde laguntzaileen jardueretan.

Ikastetxeen eta entitate laguntzaileen artean adostuko dira ikasleek eginen dituzten jarduerak.

Kanpo lana programa bakoitzean jarraitu beharreko jarduteko protokoloa ezarriko da. (1. eranskina).

Jarduera guztiak agertuko dira jarduteko plan pertsonalizatuan. (2. eranskina).

Hirugarrena. Jarduteko plan pertsonalizatua.

Ikastetxeko Bizikidetza Batzordeak, Ikasketa Burutzarekin batera:

- Kasu bakoitza banaka aztertu eta jarduteko plan pertsonalizatua diseinatuko du, non hauek jasoko diren: eginen diren jardueren zehaztapena, jardueren hasiera, bukaera eta ordutegia, eta zer erakundetan eginen diren.

- Plana erakundeari igorriko dio adostasuna eman dezan.

- Programaren emaitzak ebaluatuko ditu kasu bakoitzean (7. eranskina). Horretarako, parte hartzen duen ikasle bakoitzak memoria bat idatziko du egindako jarduerari buruz. (6. eranskina).

- Programa osoa ebaluatuko du urtero, eta horren berri emanen die ikastetxeari, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoari eta erakunde parte-hartzaileei. (9.1, 9.2 eta 9.3 eranskinak).

Laugarrena. Programaren funtzionamendua.

Ikasleak jardueran parte hartu ondoren, inplikaturako entitateak haren jarrerari, portaerari eta egindako lanari buruzko fitxa beteko du. (4. eranskina).

Ikasleak bere esperientziaren gaineko hausnarketa-memoria egin beharko du, eta bizikidetzaren arduradunari eta/edo ikasketaburuari emanen dio, eta azalduko dio elkarrizketa batean. (6. eranskina).

Hasiera batean, erakunde hauetan gauzatuko da proiektua:

- Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea.
- Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Los Arcos aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Noain aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.
- Azkoien aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Zaraitzuko eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Alloko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
- Tafallako Udala
- Vianako Udala

- Galar Zendeako Udala
- Beriaingo Udala
- Tebas-Muru Artederretako Udala
- Ibargoitiko Udala
- Eloko Udala
- Biurrun-Olkozko Udala
- Noaingo Udala
- Corellako Udala
- Barañaingo Udala
- Fiteroko Udala
- Cintruenigoko Udala
- Burlatako Udala
- Esklerosi Anizkoitzaren Nafarroako Elkarte
- San Jose egoitzaren patronatua erakunde autonomoa
- GIZAIN-Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa
- Nafarroa Etorkizun Berria Elkarte
- Karitateko Andre Maria ospitalea
- Ahizpa Ospitalariak-Aita Menni klinika psikiatrikoa
- ADISCO enplegu zentro berezia-Desgaitasuna duten Pertsonen Corellako Elkarte

Hitzarmena sinatu ondoren, hitzarmenari atxiki ahal izango zaizkio beste erakunde publiko edo pribatuak; horretarako, programaren alde daudela eta hitzarmen hau onartzen dutela dioen adierazpena sinatuko dute. (10. eranskina).

Bosgarrena. Betebeharrak.

Parte hartzen duten ikasleek nahitaez bete beharko dute jarduteko plan pertsonalizatua.

Jarduera hauek egiteak ez du esan nahi ikasleek beren betebeharrak akademikoak utzi behar edo ahal dituztenik; programa egiten ari diren egunetan azterketak badituzte, egin beharko dituzte, baita irakasleek agindutako lan guztiak ere.

Hitzarmen honetan sartzen diren jardueretan parte hartzeak ez du ekarriko inongo lan harremanik ezta ordain ekonomikorik, ez parte hartzen duten pertsonentzat ez entitateentzat.

Seigarrena. Erantzukizun zibila.

Hitzarmen honen ondoriozko jarduerak egiten diren bitartean, ikastetxeko aseguruak babestuko ditu programan parte hartzen duten pertsonak, bai ikasleak, bai irakasle laguntzaileak -halakorik balego-, bai hartzaileak, aseguru horrek hitzarmenaren barneko jardueren ondoriozko erantzukizun zibila estaliko baitu. Ikastetxeko aseguruak ikastetxetik edo ikastetxera egiten diren joan-etorrietako arriskuak ere estaliko ditu.

Zazpigarrena. Ikasleen datu pertsonalen tratamendua.

Alderdi sinatzaile guztiak konprometitzen dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzera, ikasleen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

Ikasle parte-hartzaileen datuak tratatzen dituen alderdietako edozeinek betiere Departamentuaren jarraibideen arabera egingen du hori, ez ditu aplikatuko

edo erabiliko hitzarmen honetan ezarritakoaz besteko xedeetarako, eta ez dizkio beste inori jakinaraziko, ezta horien kontserbaziorako ere.

Zortzigarrena. Familien eta ikasleen konpromisoa.

Ikasle bat programa honetan sartu baino lehen, haren aitak, amak edo legezko tutoreak eta ikasleak berak, informazioa jaso ondoren (3. eta 5. eranskinak), konpromiso bat sinatuko dute. Horren bidez, programan sartzea onartzeaz gain, familia konprometituko da ikasleari parte hartzen uztera eta ikaslea, berriz, hartutako konpromisoak betetzera.

Ikasleak bere *kanpo lana* egiteko konpromiso eta arauak errespetatzen ez baditu, ikastetxeko bizikidetza araudia aplikatuko zaio, izandako jokabidearen arabera.

Bederatzigarrena. Aitorpena.

Hezkuntza Departamentuak beren lana aitortuko die programan laguntzen duten irakasleei, kasu bakoitzean egokia den moduan (curriculumetik kanpoko praktikak, prestakuntza orduak, etab.).

Hamargarrena. Indarra hartzea.

Hitzarmen honek izenpetzen den egunean hartuko du indarra.

Indarraldia 2020-2021 ikasturtearekin batera amaituko da. Hala ere, ondoz ondoko ikasturteetan luzatzen dela ulertuko da, betiere gainditu gabe

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 89. artikulua ezarritako lau urteko gehieneko epea, eta ezertan eragotzi gabe entitate sinatzaileetako edozeinek hitzarmena errebokatzea proposatu ahal izatea, hitzarmena espresuki salatuz haren indarraldia edo luzapenena bukatu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Ikasturte bukaeran, ikastetxeko Bizikidetzaren Batzordeak programa ebaluatuko du, eta haren garapenaren berri emanen zaio Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoari; ebaluazio hori ikastetxeko urteko memorian jasoko da, bizikidetzari buruzko atalean.

Elkarlanerako adierarik zabalean eta adostasunaren frogagarri, alderdiek dokumentu hau sinatzen dute, jatorrizko bi aletan, adierazitako lekuan eta egunean.

indarraldia edo luzapenena bukatu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.


Ikasturte bukaeran, ikastetxeko Bizikidetzaren Batzordeak programa ebaluatuko du, eta haren garapenaren berri emanen zaio Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoari; ebaluazio hori ikastetxeko urteko memorian jasoko da, bizikidetzari buruzko atalean.

Elkarlanerako adierarik zabalean eta adostasunaren frogagarri, alderdiek dokumentu hau sinatzen dute, jatorrizko bi aletan, adierazitako lekuan eta egunean.


 <p>Carlos Gimeno Gurpegui Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria</p>	 <p>Jon Telletxea Juanenea Malerrekako Mankomunitateko lehendakaria</p>
 <p>Fabiola Martínez Sancho Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria</p>	 <p>Jose Antonio Delgado ADISCO enplegu zentro berezia- Desgaitasuna duten Pertsonen Corellako Elkarteko zuzendari nagusia</p>
 <p>Javier Chasco Abaigar Los Arcos aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria</p>  <p>Mankomunidad de Servicios Sociales de Base ZONA de LOS ARCOS</p>	 <p>Manuel Mozota Núñez Joain aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakaria</p>




Nuria Autor Resano
Azkoien aldeko Oinarrizko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateko lehendakaria




Maia Ederra Barber
Zaraitzuko eta Nabaskozeko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateko lehendakaria



Laura Echeverria Azcona Alloko
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateko lehendakaria



Jesús María Arrizubieta Astiz
Tafallako Udaleko alkatea



M.B. Yolanda González García
Vianako Udaleko alkate
udalburua



Oscar Amóztegui Recalde
Galar Zendeako Udaleko alkatea

Jose Manuel Menéndez González
Beriaingo Udaleko alkatea


Yolanda Obanos Irure
Tebas-Muru Artederretako Udaleko
alkatea

José Javier Eslava Armendáriz
Ibargoitiko Udaleko alkatea


José Manuel García Aróstegi Eloko
Udaleko alkatea

Maria Luisa Serrano Echaves
Biurrun-Olkozko Udaleko alkatea

Sebastián Marco Zaratiegui
Noingo Udaleko alkatea



Gorka García Izal
Corellako Udaleko alkatea




Miguel Aguirre Yanguas
Fiteroko Udaleko alkatea



Oscar Bea Trincado
Cintruenigoko Udaleko alkatea

(*)


Ander Carrascón Erice Burlatako
Udaleko jarduneko alkatea



María Pilar Francés
Esklerosi Anizkoitzaren
Nafarroako Elkarteko
lehendakaria




Ainhoa Gil Pérez
San Jose egoitzaren patronatua
erakunde autonomoko zuzendaria




Pedro Ardaiz
Gizarte Zerbitzuak Kudeatzeko
Nafarroako Fundazioko
kudeatzailea




Elena Vizcay Azcoitia
Nafarroa Etorkizun Berria
Elkarteko zuzendaria



María Cristina Azcona Pérez
Karitateko Andre Maria
ospitaleko zuzendaria




Mirian Zabalza Goñi
Ahizpa Ospitalariak-Aita Menni
klinika psikiatrikoko zuzendari
kudeatzailea



María Lecumberri Bonilla
Barañaingo Udaleko alkatea

(*)Firma anulada al no estar
como Alcalde en funciones. Firma
la Alcaldesa del Ayuntamiento de
Burlada.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Ana Góngora', written over a horizontal line.

Ana Góngora
Alcaldesa del Ayuntamiento de
Burlada

(*)Sinadura bertan behera
utzi da, jarduneko alkatea ez
delako. Burlatako Udaleko
alkateak sinatu du.